

## GOBERNU BATZARRA

2009. 05. 11

**Alkatea:**

**Jokin Bildarratz Sorron**

**Zinegotziak:**

**Olatz Peon Ormazabal**

**Jokin Azkue Arrastoa**

**Andoni Iturzeta Arbillaga**

**Onintza Lasa Arteaga**

**Yurre Peñagarikano Zubeldia**

**Idazkaria:**

**Jose Luis Unanue Ugalde**

Tolosako Udaletxean, bi mila bederatziko maiatzaren hamaikan, Gobernu batzarra bildu da, ohizko bilera egiteko, goizeko 08:00etan hasita. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeke.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.- Autoeskoletako ikasmateriala.

3.-Uxola Sariak: Aurtengo lehiaketa-ren aurrekontua.

4.- Itzulpenak.

5.- Aitzol kooperatiba: Kontratua luzatzea.

6.- Saharako umeen harrera eta Erakunde bidaia: Saharako adin txikikoen harrera.

7.-Voith Gorostidi eremuko babes ofizialeko etxebizitzaren behin behineko onartu eta baztertuen zerrendak onartzea.

8.- Aprobación diversos padrones fiscales.

9.- Ibilgailuen zerga. Hobariaren eskaera.

10.- Haur-Eskola: 5 orduko edo gutxiagoko txandakoentzako diru laguntza.

11.- 7.zenbakia duen faktura-zerrenda.

### **1.- Aurreko akta onartzea.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2009ko maiatzaren 4an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

## **2.- Autoeskoletako ikasmateriala.**

Gaia erabaki gabe geratu da, Euskara eta Hezkuntza departamentutik informazio gehiago lortu arte.

## **3.- Uxola Sariak: Aurtengo lehiaketaren aurrekontua.**

Euskara eta Hezkuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Uxola Sariko aurtengo sariak, marrazkiak, epaimahaiaren lana, liburuaren argitalpena eta sari banaketa ekitaldia ordaintzeko 6.700 euroko kopurua onartzea.

**BIGARRENA.**- Kutzak bere egingo ez balu sariekin egindako proposamena, 300 euro gehiago onartzea.

**HIRUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Euskara eta Hezkuntza departamentuari.

## **4.- Itzulpenak, Udalaz kanpokoei**

Gaia erabaki gabe geratu da, Euskara eta Hezkuntza departamentutik informazio gehiago lortu arte, batik bat antzeko Udaletan gaiari buruz araututa dagoena jakin arte.

## **5.- Aitzol kooperatiba: Kontratua luzatzea.**

Euskara eta Hezkuntza batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Aitzol Kooperatibari beste ikasturte batez (2009-2010 ikasturtea) kontzesioa berritzea.

**BIGARREN.**- Erabaki honen berri ematea Euskara eta Hezkuntza Departamentuari, Kontuhartzaitzari eta Aitzol Kooperatibari.

## **6.- Saharako umeen harrera eta Erakunde bidaia: Saharako adin txikikoen harrera.**

Frente Polisariok eskaera aurkeztu du 2009ko uztailean eta abuztuan Saharako adin txikikoak hemengo familietan hartzeko.

Adin txikikoen bidaia eta aseguruen gastua, gehienez, pertsona bakoitzeko 590 eurokoa izango da.

Halaber, harrerako familiak lortzeko arazoak daudela ere adierazi da.

Hori horrela, Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Umeak hartzeko Tolosako familiak bilatzeko egiten den kanpaina informatiboa aurreratzea.

**BIGARREN**.- Finantziatzea soilik Tolosan erroldatuta dauden familietan hartutako haurren kostua, eta, gehienez, 10 haurren kostua artea.

**HIRUGARREN**.- Ana Isabel Trapero Urdangarin koordinatzailea-monitorea kontratatzea, 3 hilabetez, lanaldi osoz.

Baina, aldez aurretik eskualdeko dagokion entitateak kontratatu ahal izateko azterketa egin behar da, eta horretarako Tolosaldea Garatzenekin harremanetan jarriko da Udala.

**LAUGARREN**.- Erabaki honen berri

El Frente Polisario ha solicitado la acogida de menores saharauis en familias tolosarras durante los meses de julio y agosto del 2009.

El gasto máximo, por persona, del transporte y seguros de los menores será de 590 euros.

Además, se informa que existen dificultades para lograr familias que participen en este acogimiento.

En consecuencia, de conformidad con el dictamen de la Comisión de Salud y Servicios Sociales, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la Alcaldía,

### **ACUERDA**

**PRIMERO**.- Adelantar la campaña informativa que se realiza anualmente para la captación de familias acogedoras de Tolosa.

**SEGUNDO**.- Financiar, únicamente, el coste de los acogidos en familias empadronadas en Tolosa, de un máximo de 10 menores.

**TERCERO**.- Contratar a la coordinadora-monitora del programa, Ana Isasbel Trapero Urdangarin, por un periodo de 3 meses, a jornada completa.

Ahora bien, previamente se deberá estudiar la posibilidad de su contratación por el organismo comarcal correspondiente, a cuyo efecto se gestionará el asunto con Tolosaldea Garatzen.

**CUARTO**.- Notificar el acuerdo a los

ematea Frente Polisario, Kontu-  
tzailtzari eta Gizarte Zerbitzuetako  
Departamentuari.

responsables del Frente Polisario, a los  
Departamentos de Intervención y  
Servicios Sociales.

## **7.- Voith Gorostidi eremuko babes ofizialeko etxebizitzak behin-behineko onartu eta baztertuen zerrendak onartzea.**

Voith-Gorostidi eremuko Babes Ofizialeko etxebizitzak adjudikatzeko oinarrien VI. Puntuari "Esleipen prozedurari" buruz jasota dagoenaren arabera, Udalak Etxebizitzaren izena emandakoen zerrendak jaso behar ditu eta ondoren, Etxebizitza ez izatearen eta Erroldaren baldintzak (2003ko urtarrilaren 1a baino lehenago Tolosan erroldatuta egotea, edota 15 urtez Tolosan erroldatuta egon direla ziurtatzea) betetzen dituzten aztertu beharko du.

Etxebideak bidalitako zerrendetan, 2008ko ekainaren 30 arte 1651 eskatzaileek seinatu zuten Tolosa aukerako udalerrira bezala. Haurtatik, 194 eskatzaileek etxebizitza beharrezko baldintza betetzen ez zutela ziurtatu ondoren zerrendetatik baja eman zaie (etxebizitza tasatu baten adjudikatarioak direlako, etxe librea erosi dutelako, etb.) Gainontzekoen artean, 581 eskatzaileek bakarrik betetzen dute oinarrietan jasotako errolda baldintza.

Babes Ofizialeko etxebizitzaren adjudikaziorako oinarrietan jasota dagoenaren arabera Zozketarako onartu diren eskaeren artean hiru kupo edo talde desberdinak dira:

- Mugikortasun urri iraunkorreko eskatzaileak..... 12
- 35 urtetik beherako bizikideak..... 399
- Kupo orokorra ..... 170

Gainera, Etxebizitza eta Gizarte gaietako 2008ko apirilaren 16ko Aginduak, Babes ofizialeko etxebizitzaren esleipen prozedurari buruzkoak, 13. artikuluan jasotzen duenaren arabera, eskatzaile bakoitzaren bizikidetzaren unitatea nola osatuta dagoen kontutan hartu da, zozketarako aukera edo zenbaki kopuruak emateko:

- a) Orohar, eskabide bakoitzari zenbaki bakar bat.
- b) Bikoteek izenpetutako eskabideei, bi zenbaki.
- c) Beren kargura seme-alaba adingabeak edo beren tutoretzapeko pertsonak barnean hartzen dituzten eskabideei, bi zenbaki.
- d) Aurreko bi zirkunstantziak (b eta c) biltzen dituzten eskabideei, hiru zenbaki.

Horiek horrela, eta espedientean agertzen diren onartu eta baztertuen zerrendak aztertu ondoren, Gobernu batzar honek aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Proposatutako Behin-behineko onartu eta baztertuen zerrendak onartzea, azken hauetan kanporatzeko arrazoiak aipatzen direlarik.

**BIGARRENA**.- Eskatzaile bakoitzari onartua edo baztertua izan den jakinaraztea.

**HIRUGARRENA**.- Behin-behineko zerrendak onartu direla iragartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta informazio publikoan jarrita edukitzea udaletxeko iragarki-taula eta web orrian 15 lanegunetako epean, interesatuek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten. Epea kontatzen hasiko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

## **8.- Aprobación diversos padrones fiscales.**

A propuesta del departamento de Intervención y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

### **ACUERDA**

**PRIMERO**.- Proceder a la aprobación del padrón relativo a la utilización privativa o aprovechamiento especial del suelo de la vía pública municipal con cajeros automáticos, correspondiente al presente ejercicio de 2009.

**SEGUNDO**.- Someter el citado padrón a exposición pública por plazo de un mes a partir de la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, al objeto de que puedan formularse los pertinentes recursos de reposición contra el contenido de los mismos.

## **9.- Ibilgailuen zerga. Hobariaren eskaera.**

### **M.A.A.-ren eskaera**

2009ko maiatzaren 5ean, M.A.A.k Trakzio Mekanikoko ibilgailuen gaineko zergan %50eko hobaria eskatu du, bere kotxearen lehendabiziko matrikulazioaren data 1939koa baita.

Ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 6. artikulua xedatutakoarekin bat etorri, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez

El día 5 de mayo de 2009, M.A.A. ha solicitado la bonificación del 50% en el Impuesto sobre vehículos de Tracción Mecánica, ya que la fecha de la primera mtriculación de su vehículo es de 1939.

De conformidd con el art. 6 de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre vehículos, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por

baliatuta,

la alcaldía,

### **ERABAKI DU**

### **ACUERDA**

**LEHENA**.- M.A.A.ren izenean matrikulatutako H-7420-BBB ibilgailuari %50eko hobaria onartzea Ibilgailuen gaineko zergaren kuotan, hogeita bost urteko antzinasuna duelako.

**PRIMERO**.- Conceder la bonificación del 50% de la cuota del Impuesto sobre vehículos al vehículo H-7420-BBB, matriculado a nombre de M.A.A, por tener un antigüedad superior a 25 años.

**BIGARRENA**.- Hobaria 2010ko ekitalditik aurrera aplikatzea.

**SEGUNDO**.- Reconocer la bonificación con efectos a partir del período impositivo del año 2010.

**HIRUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea, Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

**TERCERO**.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a Intervención y al interesado.

#### **10.- Haur-Eskola: 5 orduko edo gutxiagoko txandakoentzako diru laquntza.**

Gaia erabaki gabe geratzen da, informazio gehiago lortu arte.

#### **11.- 7. zenbakia duten faktura-zerrendak.**

Kontuhartzaitzak 7. faktura-zerrendak aurkeztu du, 309.128,61€-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Aipatutako 7. faktura-zerrendak onartzea.

**BIGARREN**.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**